



#### 4 ELKARRIZKETA

### Irati Jimenez idazlea irakurle txokoan asteartean

Idazle bizkaitarrak "Nora ez dakizun hori" eleberriaz hitz egitera etorriko da Irakurle Txokora. Asteartean 18:30ean Villa Mirentxun eta Uxue Alberdiren gidaritzan herriko literatur zaleek idazlearekin elkartrukatu ahal izango dituzte bere liburuaren irakurketa- inguruan sortutako zalantza eta iritziak.

#### 6 ATLETISMOA

### Emaizta onak Gipuzkoako txapelketan

Asteburuan atletismoko Gipuzkoako absolutu mailako txapelketa egin zen Donostiako belodromoan. LOKEko atletak bertan izan ziren eta emaitza oso onak lortu zituzten. Herrira ekarri zituzten bi urrezko domina, zilarrezko bat eta bi brontzeko. Atleta guztiaren artean bereziki aipatzekoa da Itoitz Rodriguez gazteak 400 m. lasterketan lortutako garaipena. Honekin Euskadiko errekorra lortu zuen.



## Gure esku dago jaialdia bihar

Lasarte-Oriako lan taldeak ekintzak antolatu ditu Okendo plazan



Lan taldeak Villa Mirentxun egin zuen ekimenaren aurkezpena herriko eragile ezberdinak gonbidatutako ekitaldian.

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago lan taldeak ekintza egitarau zabala antolatu du biharko. Okendo plazan musika, dantza eta jolasak ez dira faltako. Helburua ekainaren 8an egingo den giza katearen inguruko informazioa zabaltu eta taldearen lana ezagutzera ematea da.

**G**oizeko 10:00etan hasita egun osoko egitaraua antolatu du biharko herriko Gure Esku Dago lantaldeak. Duela aste batzuk giza katearen ekimena zabaltzeko xedearekin Lasarte-Orian hainbat ekintza egingo zizutela aurreratzen zuten.

Lehenengo ekintza bertso poteoa izan zen eta honen erantzuna ikusita, antolatzaileek espero dute biharkoan ere herritarren babesa izatea.

#### Egun osoa

Bihar larunbata, egun osoko jaialdia izango da Okendon eta erdiguneko kaleetan.

Herrira esnatzeko txistulariak, dultzaineroak, trikitilariak eta joaldunak izango dira herriko kaleetan barrena jai giroa pizten eta 11:00etan jaialdiari hasiera emango zaio ofizialki. Honetarako taldeak aurkezpen bat prestatu du egitasmoa azaltzeko.

Ondoren, 11:30ean Po-

rotx eta Mari Motots herriko pailazoekin "eskuetan" flashmob-a egingo da plazan bertan.

12:00etan kirol erronka eta apustuek hartuko dute lekua. Baina dantzak berriz bere protagonismoa hartuko du 12:10ak inguruan. Euskal dantzak eta dantza garaikidea izango dira kasu honetan. 12:40ean herrian zehar kantuan ariko dira hainbat herri-tar.

13:00etan Sorgin dantza herrikoia egingo da Okendon eta honetan herritar orok parte hartu ahal izango du. Antolatzaileek blusa eta zapia jantzi eta honetan parte hartzeko deia luzatzen dute.

13:30ean Gure Esku Dago lantaldearen aurkezpena

egingo da eta jarraian, 13:45ean erromeria eta plaza dantzak jai giroan murgiltzen lagunduko dute.

Arratsaldean berriz, 17:00etan hasita eta 18:30ak arte haurrentzako herri kirolak egiteko aukera izango da. 18:30ean bertso saioa eta 19:00etan berriz ere, festari amaiera borobila emateko, erromeria Itzartu taldearen eskutik.

Ekintza egitarauaz gain, egun osoan zehar egitasmoaren inguruko informazio guinea egongo da Okendon jarrita, mural bat ere margotuko da eta txosna eta photocall-a izango dira.

Lasarteoriatarrek jai honetan parte hartzerantz deitzen dituzte antolatzaileek.

- Loradenda Ormazabal.
- Santana Informática.
- Perfumería Maiane.
- Merceria Aritza.
- Ventanas Alcar.
- Bar Arkupe.
- Merceria Olmi.
- Electricidad Arregui.
- Librería Zumaburu.
- Bar Txampa.
- Modas Alba.
- Complementos Alda.
- Noaoa Bidaiak.
- Ekain Liburudenda.
- Donna
- Lenteria Maya.
- Bazar Abreu
- Optika Lizarra.
- Mauxaren Denda.
- Urruzola Mertzeria.
- Bideo Lagunak.
- Ferrreteria Suko.
- Asmae Zapatadenda.
- Ventanas Isu.
- Bar Guria.
- Osteopatía Y Fisioterapia Noelia.
- Orbela Ekodenda.
- Joyeria Izarra.
- Zapateria Iturbe.
- Cannes.

# MANTTANGORRI

## KANPAINA

OTSAILAREN 17-tik 28-ra  
ATERPEAK ORDAINDUKO DIZU  
MANTTANGORRI TXARTELA

(GURE HERRIAREN ERROKITA DA)

Neure kabuz



**Gorka Lasas**  
Eskutik helduta

Maite ditut maite, gure bazterrak ...  
Eta maite ditut ibarrak, ibaia, mendiak, itsasoak, soro-larreak, herriak eta hiriak.

Maite dut gure lurra, oi lur, oi lur, ene lur nerea....

Baina maite dudan lur hau, ez da lur eremu soila, ama-lurra baizik. Bizitzaren iturria, nire arbasoen sorterria, aberria.

Lur zati honen izena Euskal Herria da, eta munduko mapetan agertzen ez den arren, zerutik begiratuta, bihotz handi baten itxura duen herria da.

Eta nire herria ez da lur zati soila; mendiz, basoz, ibaiez eta aranez osatuta egoteaz gain, jendez osatuta dago. Jende anitzaz, aniztasunak egiten baitu herria aberats, eta aniztasuna aberats herriak.

Nik maite dudan herri honetan, herri mugimenduan antolatutako gizon emakume guztion ekarpenari esker, sustraletara atxikiz eta gure erroei eutsiz, nazio bat osatu dugu. Eta nazio bat garen heinean, erabakitze eskubidea dugu, eta etorkizuna, herri honetako herritarren esku dago. Zer izan ginen badakigu, zer garen ere bai, eta orain, zer izan nahi dugun erabaki nahi dugu. GURE ESKU DAGO, bai, herria osatzen dugunon esku. Herritarren garaia da, eta eskutik helduta egingo dugu bidea.

Zorion agurrak



**Ane Bego**  
Zorionak zure 18. urteurrenean. Ondo pasa. Familiaren izenean



**Lander**  
Zorionak! Zure guraso, Jon, osaba Aitor eta Peporen partetik. 12 muxu!!!



**Haizea**  
Zorionak zure 12. urtebetetzean. Ongi pasa lagunekin ospatzen. Zure ahizpa Amanda eta gurasoen partetik.



**Naroa**  
Zorionak Mari Sorgin. 10 muxu potolo. Julen, Aitaxo eta Amatzoren partez.



**Naiara eta Aingeru**  
Zorionak bihurri pare! Gozatu dezazuela egunaz, irri polit horiek galdu gabe! Muxu potolo bat familiaren partez!



**Hodei**  
Zorionak amona eta familiaren partetik. Muxu handi bat.



**Irati**  
Zorionak printzesa zure 5. urtebetetzean. Mila txokomarrubizko muxu familiaren partetik.



**Nacho**  
Zorionak familiaren eta bereziki gurasoen partetik. 9 muxu.



**Ainhoa**  
Zorionak polita, 10 urte, txapelduna zea!



**Aiara**  
Zorionak printzesa zure bigarren urtebetetzean. Gurasoen eta izanen partetik.



**Oier**  
10 urte iada gure etxeko printzeak!! Zorionak eta hamar muxu potolo Unai, aita, ama eta etxeko guztien partetik.



**Maialen**  
Zorionak Maialen, ia egun ona pasatzen dezun. Amatzxo, aitaxo, amona, osaba eta Aitorren partetik. Muxu bat.



**Hodei**  
Zorionak txapelduna familiaren partetik. Gurasoen partetik bereziki!

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- June Crespo Labian, otsailaren 8an.
- Alazne Perez Surio, otsailaren 6an.
- Ekai Montejo Carballo, otsailaren 5ean.



Heriotzak

- Jesus Barbero Merino, otsailaren 13an, 59 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 14 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 15 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 16 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 17 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astearte, 18 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 19 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 20 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Aldabe, Perkaiztegi 8  
Hernani, Tel.: 943 336 022

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munnteri AEK	943 372863

Azoka txikia

Eskaintza immobiliarioak

- Usurbilgo sarreran pisu handia alokatzen dut. 648 614 769.

Lan-eskaria

- Emakume arduratsua lana bilatzen du, externa edo interna, pertsona adinduak, umeak edo garbiketara, lanetan. Esperientziaduna eta erreferentziak. 633292912
- Emakume eskaintzen da garbiketara lanak edo haurrek, zein pertsona adinduak zaintzeko. Orduka edo egun osoa. Erreferentziak ditu. 681 042 214.

- Interna, externa modura edo orduka lan egiteko prest nago. Garbiketara edo pertsona adinduak zaintzen. 671 763 558
- Lan bila nabil. Externa edo interna modura. Esperientzia eta gomendiozko gutuna. Harremanetarako, 656 648 168.
- Emakume eskaintzen da pertsona adinduak zaintzeko. Interna edo externa moduan. Harremanetarako, 616 455 767.
- Emakume arduratsua eta paperekin, zaintza edota garbiketara lanetan aritzeko eskaintzen da. 689159643 Francisca

- Emakume eskaintzen da pertsona adinduak edo haurrak zaintzeko edo garbiketara egiteko. Extrema, orduka edo interna modura. 943 365 149.
- Mutil arduratsua adineko pertsonak eta behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko prest. 631 096 944 Javier
- Emakume eskaintzen da etxeko lanak eta zaintza lanetarako. 7 urteko esperientzia eta paperak. Orduka lan egingo luke. 617764996
- Mutila eskaintzen da gizon adinduak zaintzeko. 943 365 149.
- Etxeko garbiketara edo pertsona adinduak zain-

- tzen lan egingo nuke. Astelehenetik ostiralera. Externa modura. Esperientzia eta informea ditut. 671 265 867.
- Orduka, asteburuetan edota externa moduan lan egingo nuke garbiketara edo zaintzen. 642 818 480 edo 633 047 767
- Lan bila nabil. Etxeak garbitu, zaharrak edo haurrak zainduko nituzke goizetan, igande edo jai egunetan. 943 404 015 edo 606 661 048, Doris.
- Emakume eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona adinduak zaintzeko. Interna, externa edo orduka. Esperientzia du. 610 147 291.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikulueta edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea Etzagirre, Jon Altuna E.

**txintxarri@txintxarri.info**

Publizitatea eta administrazioa:  
Arantza Artola

**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasas, Ane Labaka, Mañu Amutu, Añer Odriozola, Jone M., Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

## UDALA

# Batzarreko gai guztiak onartu ziren

## Udalean ospatuko diren ezkontza zibilen ordenantza ez zen aztertu

Ohiko udalbatzarra izan zen astearte arratsaldean. Hainbat gai jorratu ziren honetan, horien artean, Lasarte-Orian babes publikoko etxebizitzaren erregimena arautzeko ordenantza indargabetu eta udaleko etxebizitza eskatzaileen erregistroa Etxebiden bildu arte erregimen iragankorra izatea onartu zen.

Asteartean ohiko Udalbatzarra izan zen. Aurkeztutako gai eta mozio guztiak aztertu eta aurrera atera ziren.

Batzarrari hasiera eman baino lehen alkateak Udalean ospatuko diren ezkontza zibilen ordenantza berria batzar honetan ez zela aztertuko azaldu zuen, batzordean eman ziren hainbat aldaketa aztertu behar baitira.

Lehenik, Segurtasun lan batzordeak landutako eraso eta arrisku psikosozialen protokoloa onartu zen, PP eta PSE-EEre abstentzioarekin. Honetan langileek honelako kasuen aurrean jarraitu beharreko irizpideak zehazten dira.

Bestetik, Lasarte-Orian babes publikoko etxebizitzaren erregimena arautzeko ordenantza indargabetu eta udaleko etxebizitza eskatzaileen erregistroa Etxebiden bildu arte erregimen iragankorra izatea onartu zen Bildu, EAJ, LOHP eta Marisa Zubiri zinegotzi ez adskribatua- ren bozkei esker. PP abstentziora



Udalbatzarra izan zen asteartean. Alderdiek hainbat gai jorratu eta onartu zituzten.

jo zuen eta PSE-EEK aurka bozkatu zuen.

PSE-EEK gai honen kudeaketara kritikatu zuen eta honen bitartez, herritarrek zituzten abantailak galduko dituztela esan zuen, baita 600 pertsona kanpo geratuko lirakeela ere.

### Moziokak

Era berean, "Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin bat" taldeak aurkeztutako mozioa aztertu zen. Honen bitartez taldeak, Mendebaldeko Sahararen egoera eta gatazkaren irtenbide eza salatzen zuten eta otsailaren 27an Saharar nazioa aldarrikatu zeneko 38. urteurrenaren egunean, udaletxeko balkoian Mendebaldeko Saharako bandera jartzeko eskatu zuten.

Udalbatzarrak eskaera onartu zuen, PP, PSE-EE, Marisa Zubiri zinegotzi ez adskribatua, Bildu eta EAJren bozkekin. LOHP abstentitu egin zen.

Eta aho batez onartu zen, EAJk Arrapide ibilbideari buruz aurkeztutako mozioa.

Honen bitartez, Lasarte-

Oriako Udalak Donostiakoari Hipodromo aldeko bidea konpondu eta proiektu bateratu bat adostea eskatu dio.

PP-ko zinegotziak jakin arazi zuen, Donostiako kideekin hitz egin eta hurrengo batzarrean gai bezala eramango zutela.

Bestalde, Bilduk sakabanaketa eta espetxe politikarekin amaitzeko eskaera egin behar zuten bakarka, baina EAJrekin adostuta beste testu bat eraman zuten batzorrera.

Arkaitz Bellonen familiari elkartasuna agertu eta egungo egoera politikoa bereziki kontuan izanik, sakabanaketa eta espetxe politika amaitzeko eskatu zuten alderdi abertzaleek. Era berean, mozioa hainbat erakunderi bidaltzea ere aurreikusten zen.

Bi alderdi hauen aldeko bozkarrekin aurrera atera zen eskaera.

### Auditoria eta bizikidetzak

Azkenik, alderdiek eta herritarrek haien galderak eta erreguak egiteko txanda ere izan zuten batzarrean.

Gobernuko eta batzorde

buruek PSE-EEren galderei erantzun zieten.

Auditoria legalari buruz, informarean zain daudela berretsi zuen Gobernuak. PSE-EEKo Lourdes Acevedok gaia behingoz azaltzea eskatu zuten, bi urte eta erdi igaro direlako eta oraindik ezer ez delako argitu.

Ludotekako lokaleko hitzarmena urte honetan bukatzen da eta ikasturte bukaera arte erabili ahaliko du kudeatzen duen taldeak. Baina hurrengo ikasturtera begira, oraindik ez da zehaztu zer egingo den.

Udalaren etxebizitzak alokairuan jarriko dira. Egun Alokabiderekin tratuetan daude, honek eramango baitu hauen kudeaketa. Etxebidek, berriz, zozketak egingo ditu.

Kale hezitzaile edo Emakumeen Zentroko lagileen kasuak dela eta, hurrengo zerbitzu lehiaketetan subrogazioa kontuan izango dela adierazi zen.

Era berean, udan Gorka Lizarraga zinegotziari irekitako espedientearen berri jakin izan nahi zuten alderdi sozialistak eta Lizarragaren dimisioa eskatu zuten, bere karguan, orduan jarduneko alkate, nagusikeria erakusteagatik.

Lizarragak egoera eta espedienteak bere bidea jarraitzen duela azaldu zuen.

EHBilduk etxeetara bidalitako aldizkariaren portada ere kritikatu zuen PSE-EEK. Modu berean, PP-k bere haserrearen erakutsi zuen lankidetzaren diskrezioa eskatzen zelako.

EHBilduk batzorde horretan egin nahi den lanaren erakusle bat besterik ez dela adierazi zuten.

## HEZKUNTZA

## Urtxintxa taldearen irteera

Otsailaren 9an Sasoeta eskolako Urtxintxa taldeak irteera egin zuen Kristina-Eneara.

Sasoeta-Zumaburuko guraso elkarteak eskera batzordeak, Iñaki Eizmendiren laguntzarekin, irteera hauetan euskararen erabilera sustatu duen familian eta aisiaren esparruan.

## MUSIKA

## Andoaingo piano jaialdian lehiatzen

Herriko Udal Musika eskolako ikasleek Andoaingo piano jaialdian parte hartuko dute asteburuan.

A mailan Sara Segurado, Unax Goenaga, Leire Martin, Ainhoa Martin, Leire Diez eta Haritza Diez de Guereñuren lanaz gozatu ahaliko da. Jaione Martos, Maria Otxandorena, Irene Carques, Alain Hurtado, Jone Castro, Valeria Fadrique eta Izaro Lizartza B mailan lehiatuko dira. C mailan Sara Rubio ariko da.

## EUSKARA

## Langabetuentzat euskara ikastaroak

Munterri-AEK euskaltegiak Udalaren laguntzaz herriko langabetuentzako euskara ikastaroa antolatu du. Ikastaro trinkoa izango da martxoaren 3tik apirilaren 10era. Egunean 4 orduko saioak izango dira eta 100 ordu osatuko dira. Euskara maila ezagutzeko proba bat egingo da.

Ikastaroak 10 euro balio ditu. Izena eman edo informazio gehiagorako Munterri-AEK-ra gerturatu behar da.

## INAUTERIAK

## Mozorroak prestatzeko deia

Amaraun Ludotekaren Inauterik prestatzeko ekintzak hasiko dira.

4-8 urtekoen mozorroa Bonberenea Txaranga izango da. Haur prestatzeko otsailaren 19an eta 26an, 17:45ak eta 19:30ak bitartean elkartuko dira haur eta gurasoak.

Otsailaren 22an, 2-8 urtekoentzat makilaje ikastaroa egingo da, 11:00etatik 12:30ak arte. Haurrak heldu batekin joan beharko dira ikastarora. Honetan parte hartzeko aurrez izena eman beharko da otsailaren 19a bitartean.

Bestalde, martxoaren 4ean, 11:00etatik aurrera, 4-8 urtekoek mozorro festa berezia dute. Haurrek 2 euro eta egunkariak eraman beharko dituzte. Honetaz gozatzeko aurrez izena eman behar dute.

# Udalbatzarreko erabakien azalpen eta erantzunak

EAJ-ko Estibur Alkateak asteazkenean prentsari egindako agerraldian, Lasarte-Orian babes publikoko etxebizitzaren erregimena arautzeko ordenantza indargabetzea azaldu zuen, baita Etxebiderek inongo den hitzarmeneko puntuak ere.

Alkateak azaldu zuenez, zentzurik ez duen zerbitzu bat murriztu da eta kudeaketa eta erakundearen koordinazioa hobetu eta udalaren gaiak arrazionalizatu dira.

Etxebiderekin hitzarmen bat sinatuko dutela azpimarratu zuen. Honen bitartez, Etxebiderei Lasarte-Oriako erregistroko datu guztiak emango zaizkio.

Zozketari begira Etxebiderekin hitzarmen zehatzak egiteko

asmoa agertu zuen, "Lasarte-Oriako zozketetan lehentasuna herrikoek izan dezaten eta erregistroan izan duten antzinateasuna mantentzeko".

Oraingoz erregimen iragankorran gaudenez, Zabaleta Berriko 70 etxebizitzaren zozketa egingo duen enpresari etxebizitza eskaera erregistroko datuak eskaini zaizkio, baita Adarra kaleko etxebizitzaren itxaron zerrenda Muriasko ere, saltzeko dauden 5 etxebizitzi onuradunak aurkitzeko asmoz.

Honela, herriko erregistroan dauden pertsonen eskutitza bat iritsiko zaiela jakitera eman zuen. Honetan, hamabost egunen barruan, Udalak baimena eskatuko die bere datuak eman ahal izateko.



Ailem Eleimidi izan zen eskerrak emateaz arduratu zena.

### Eskerrak eman

Lasarte-Oriako Saharar herriaren lagunak taldeko kideek agerraldia egin zuten asteazkenean udalbatzarrean aurkeztutako mozioaren onarpenera alderdiei eskertzeko.

Horretaz gain, otsailaren 27an Saharar nazioa aldarrika-

tu zeneko 38. urteurrenaren egunean "Maroko Sahararik at, autodeterminazioa eta independentzia" lelopean elkarretaratzeko egingo dutela aurreratu zuten. Okendon izango da 19:00etan eta honetan herritarrei parte hartzeko deia luzatu zuten.

Irati Jimenez Idazlea

## "Irakurleek hobeto idazten irakatsi didate"

*Irailen martxan jarri zenetik Irakurle Txokoak hilabetero saio bat antolatu du. Euskal literaturaren baitan lehen mailako lanak irakurri eta landu dituzte Uxue Alberdiren gidaritzapean. Tartean Miren Agur Meabe edota Arkaitz Cano izan dituzte gonbidatu. Asteartean, Villa Mirentxun 18:30ean elkartuko dira "Nora ez dakizun hori" eleberriaz hitz egiteko eta saio honetara ere Irati Jimenez idazle bizkaitarra gerturatu da. Berarekin elkarbanatu ahal izango dituzte parte hartzaileek eleberriaren irakurketan sortutako zalantzak edota besterik gabe, iritzi eman.*

Irati Jimenez idazlea izango dute gonbidatua Irakurle txokoan datorren asteartean. *Nora ez dakizun hori* eleberria irakurri eta idazlearekin elkarbanatu ahal izango dituzte iritzi eta zalantzak.

Idazlearentzat irakurleekin harreman zuzena edukitzea garrantzitsua da eta euren iritziei esker bere ahultasunak ezagutu dituela dio eta horrenbestez, hobeto idazten irakatsi diotela.

**Nora ez dakizun hori maitasun eleberria dela esan daiteke. Protagonista ezberdinak ditu, heriotzak ere presentzia handia dauka... Nola deskribatuko zenuke?**

Maitasun istorioa da baina bereziki, ipuinen gorazarre egiten duen eleberria da.

Elementu fantastikoak ditu, beraz, ipuinen modura, eta kode hori erabiltzen du

tabuaz edo heriotzaz hitz egiteko. Emozio errealistak deskribatzen ditu baina testuinguru erdi errealista, erdi mitologiko batean.

Zentzurik zabalenean erromantikoa dela esango nuke.

**Nora protagonista irriti esataria da, zuk ere ondo ezagutzen duzun mundua da. Pertsonaian zantzu autobiografikoak aurki al daitezke?**

Bai, baina ez pertsonaia horretan bakarrik. Eleberri osoan zehar.

Nire bizitzako elementu asko sartu nituen. Irratia, jakina. Baina baita xehetasun txikiagoak ere: niri gustatzen zaidalako du patata tortillak garrantzia, Berlin deskribatzen denean elurpean deskribatzen da neuk ikusi nuen bezala. Horrelako ehundaka adibide daude.



Irati Jimenez idazlea.

ELKAR ARGITALETXEA

**Martin munduan zehar ibilitako argazkilaria da. Bilbora bueltan Eliasekin duen harreman berezia agertzen da. Bi protagonistek amaren hutsunea dute...**

Eta biak dira etxetik aldegin duten gizonak. Aita-semeak ez diren aita-semeak dira eta batek -Eliasek- betetzen ez duen maitasun istorioa besteak -Martinek- betetzen du. Belaunaldi batean madarika-

zioan bukatzen den istorioa hurrengoak bedekintu egiten du, maila batean. Osatu.

**Aldi berean harreman mota ezberdinak azaltzen dira, ezusteko pertsonaia ere. Irakurle harritzea bilatu duzu?**

Idaztean, maiz iruditzen zait irakurlearen interesa galtzen ari naizela eta etengabe arreta horren bila sentitzen naiz, sorpresaren bidez askotan

edo bestelako emozioen bidez.

**Eleberria 2009an kaleratu zenuen. Zer suposatzen du idazlearentzat halako irakurle txokoetan parte hartzea?**

Niretzat oparia da. Horrenbeste urteren ondoren eleberria bizirik dagoela sentitzea harrigarri egiten zait, modurik pozgarrienean. Askotan eman nion nobelari baina askoz gehiago itzuli dit.

**Zer jaso duzu orain arte irakurleengandik?**

Gauza pilo! Nik idatzitakoa beste begi batzuekin irakurtzeko modua eman didate, haien galderei eta haien iruzkinei esker.

Ahultasunak erakutsi dizkirate eta, beraz, hobeto idazten irakatsi didate baina, bereziki, emozioan izan dira oso eskuzabalak. Nobela bere egin dute nik idatzitako beste ezer baino gehiago eta hori sentitzea oso berezia izan da.

**Zer esango zenieke irakurleei solasaldian parte har dezaten...**

Eleberriaren unibertsoan gustura sentitu baziren unibertso horretan jolasean arituko gara esango nieke.

Hitzekin olgetan egingo dugu, tartetxo batez. Eta ongi etorriak zarete denok!

## Euskarazko aisialdiaren inguruan esperientzia trukea

Asteazken arratsaldean, "Aisia familien parte-hartzearekin eraikiz" hitzaldi antolatu zuten Kukuka Antzerki eta Dantza eskola, Xumela, Munterri AEK, Zabaleta-Auzolan eta Ttakun elkarteak.

Helburua, Lasarte-Orian euskarazko aisiaren ikuspuntua aztertu eta aurrera pausoak ematea izan zen. Horretarako, beste eskualde batzuetan gauzatzen ari diren proiektuak ezagutzera eman nahi izan zituzten, Oarsoaldeko Irrien lagunak proiektua eta Arrasateko Txatxilipurdi elkartearen Haurrasate ekimena.

Lehenik, Ttakunek hartu zuten hitza eta bere aisialdi eskaintza azaldu zuten.

### Irrien Lagunak

Ostean, Oarsoaldeko Irrien lagunak taldeak bi urte eta erdian egindako lana ezagutu ahal izan zen, Eli Astiazaran Pasaia teknikiari eta Lezo



Oarsoaldeko Irrien lagunak taldeko tekniko eta gurasoak aurkeztu zuten ekimena eta Eneko Barberenak Arrasaten gauzatzen ari den Haurrasate proiektua ere azaldu zuten.

eta Oiartzungo taldeetako bi amaren eskutik.

Oarsoaldeko teknikariak, gurasoak, gazte eta haurrak batera lanean ari dira proiektua aurrera eramateko.

"Ez genuen haurrak aisiaren kontsumitzaile soilak izatea nahi. Haurrek parte hartu eta erabaki zezaten nahi genuen". Pausoz pauso haurren batzarrak, gurasoekin batzarrak eta egun guraso, haur eta gazteekin batera ba-

tzarrak egiten dituzte ekintzak erabaki eta gauzatzeko, "elkarlana ere garrantzitsua delako".

Janaren erakusle batzuk ere eskaini zituzten bideoen bitartez, herriak koloreztatu, irrintza jaialdia, tailerrak, txangoak...

Agerraldiari amaiera emateko, Oarsoaldeko Irrien lagunak taldeak sortu duen abesti eta dantzari esker aretoa dantzan jarri zuten.



### Haurrasate

Bestalde, Txatxilipurdi elkarte Eneko Barberenak Arrasaten lantzen ari diren Haurrasate ekimena aurkeztu zuten.

Galdera bati erantzunez, "etorkizuneko herria zein nahi dugu? Lanean hasi ginen".

Lehen pausoa haurrei hitza ematea izan zen, gero plazara atera eta bertan dauden eragile desberdinekin,

feministak, ekologistak... lanean hasi ziren. Honela, aisialdi hezitzailean oinarritutako dinamika bat jarri dute martxan. Heziketa, balioak eta elkarlana dute ardatz. "Euskaraz aisialdia tresna izan behar da eraldatu eta hobetzeko".

Bi esperientzia hauek entzun ostean, Lasarte-Orian aisiaren arloan egin daitezkeen ekimenen gogoeta tailerra egin zen.

# "20 urte hauetan gugan jarritako konfiantza eskertu behar dugu"

Mekanografia irakasteko helburuarekin zabaldu zuen Lurdes Rodriguezek Meka Leku

1994ko otsailaren 12an ireki zituen atea Meka Leku akademia. 20 urte bete ditu aste honetan eta Lurdes Rodriguezek eta bere lantaldeak urte guzti hauetan bidelagun izan dituzten guraso, ikasle eta orokorrean, bezero guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete. Lurdesek bere aldetik, hitz bereziak izan ditu bere lan taldearentzat.

Lurdes Rodriguezek 1994ko otsailaren 12an zabaldu zuen Meka Leku akademia Zumaburuko Andapa kalean. Familia eta lagun artean hamaiketako prestatu zuten inaugurazio moduan eta gurasoek Zumaburuko Don Ramon apaiza eraman zutela gogoratzen du. "Hark bedeinkatu zuen lokala nire gurasoen eskaeraz. Harek ere, agian, izango du bere meritu".

Hasiera batean kontabilitatea eta mekanografia ikastaroak eskaintzea zen Lurdesen asmoa. Administrazioan goimailako heziketa-zikloa gainditu ondoren, unibertsitatean enpresaritzan ikasketak egiten hasi zen. Ikasketa hauek ordaintzen laguntzeko, klase partikularak ematen hasiko zela esan zien gurasoei. "Gurasoei esan eta ondo ikusi zuten baina etxean jendea hartu beharrean, lokal batean jartzera bultzatu ninduten".

Lokal bat hartzeak suposatzen zuen legalki dena modu egokian jarri behar izatea eta hala egin zuen 21 urterekin.

Lokal txikian makina batzuk jarri eta otsailean lanean hasi zen. Jendea mekanografia eta kontabilitatea ikastera joaten zen Meka Lekura, heldu zein haur.

## Jardun aldaketa

Urte askotan eskal udal-kuetan begirale bezala ibilia zen Lurdes eta horregatik herriko guraso batzuen artean ezaguna zen.

"Egun batean, ama bat etorri zen eta euskaraz umeari laguntza eskolara emango ote nizkion galdetu zidan. Ez nuen jakin, ia ez zidan aukerarik eman ezetz esateko eta horrela gertatu zen akademiaren ibilbide aldaketa".

Gurasoen ahoz ahokoari esker, geroz eta ume gehiago hasi ziren Meka Lekura laguntza eskolara jasotzera joaten. "Ez ziren ondo sartzen umeak makinaren artean" eta urtea bete baino lehen, lokal handiago batean, Hipodromo etorbideko etxebizitzan zeuden eta beste irakasle bat zegoen lanean Lurdesekin batera. Matematika eta zientzia arlotan aritzeko bien artean moldatzen ziren.

Ingelesa eskaintzan zintzilik gelditzen zitzaizen irakasgaia zela gogoratzen du Lurdesek eta behar horri erantzuna emateko, iritsi zen hirugarren irakaslea.

"Lan talde finkoa izan gara ia hasieratik nahiz eta irakasle desberdinak ere pasa diren. Adibidez, egun dagoen laugarren irakaslea haurdu-



Irakasleak ikasleekin batera lanean.

naldi ordezkapen bat egiteko etorri zen eta geratu".

Filosofia lan talde finkoa osatzea izan da beti Lurdesen esanetan. "Gutxi dira esparru honetan lanean gelditu nahi dutenak. Batzuetan oso gogorra da baina baita polita ere".

Hezkuntzarekin batera "20 urtetan gurasoak, ikasleak denak aldatu gara. Guk ahalgin sendoa egin dugu urtero aldaketa horietara egokitze" prestakuntza etengabekoa izan dela azpimarratzen du Lurdesek.

## Baliabideak

"Ulertzen ez dena azaldu eta lantzen da hemen, lan egiten

da zailtasunak daudenean. Ikasle bakoitza aztertzen dugu, arazoak badaude, arazoak egongo dira eta horretarako tutorearekin hitz egiten dugu eta lana koordinatzen da".

Akademiaren helburua da ikasle zein gurasoei laguntza akademikoa eskaintzea baina "irakaskuntza eta ikaste prozesuan berebiziko arreta jartzten. Ume bakoitzaren beharretara moldatzen gara honek kurtsua ondo buka dezan".

Bestalde, "ikasleekin erabateko konpromisoa dago gure irakasleen aldetik baina eskola, akademia eta gurasoak bide beretik joan behar dira laguntza hori ikasleari emateko unean".

Etxean ez bazaio behar besteko atentzioa jartzten zaila da ikasketan dauden zailtasunak gainditzea Rodriguezen ustez.

## Herritar asko

Ikasle, guraso asko pasa dira Meka Lektik 20 urte hauetan. "Ikasle horien artean, zailtasun asko edukitakoak daude, karrera primeran atera dutenak edota ikasketetan onak izan ez eta lanean euren lekua topatu dutenak. Gaur egun, egunero ematen dira lorpenak, miraritzoak guretzat. Beraz, harro sentitzen gara egindako lanaz".

Gertatu izan da ere urte guzti hauetan "guraso eta

seme-alabei une berean ematea eskolara, mekanografia zein laguntza eskolara eta hori oso adierazgarria da".

"Gogorrena bidean galdu ditugunak izan dira. Gurasoak hil direnean gogorra izan da konfiantzazko harremana genuelako haiekin baina hainbat ikasle ere hil zaizkigu. Zure sentitzen dituzu eta momentu zailak izan dira, ahazten ez direnak".

Urteurrenean, Meka Lektik azpimarratu nahi da "politena gugan guraso eta ikasleek jarri duten konfiantza izan da. Hemen ikasle batek bere zailtasunak gainditzen dituztenean ikaragarria da hartzen dugun poza. Ikasleak askotan ez dira kontziente izaten lanari esker lortu dutenaz gu bai ordea, eta horiek momentu hunkigarriak izaten dira".

"Azterketak banan-bana borrokatzen ditugu, ebaluaketa bakoitza, ekaina bitartean, selektibitatea ere haiekin sufritzen dugu: prestatuz eta emaitzen zain".

Lurdesen ustez ikasleengana gertutasuna eta inplikazioan dago Meka Leku akademiaren arrakastaren arrazoietakoa bat.

"Hemengo irakasle on inplikazioa, ilusioa, gogoak mantentzen gaitu martxan 20 urteren ostean eta aurrerantzean, orain arte bezala lan egiten jarraitzeko asmo sendoa daukagu Meka Lekun".



Urteurrena ikasleekin ere ospatu zuten asteazkenean baina ikasgeletan lanean jarraitu zuten.

## LABURRAK.

## Enara Fernandez irabazle Madrilen

Itsu eta ikusmen urria duten pertsonen zuzendutako eski alpinoko FDC lehenengo kopa ospatu zen aste-buruan, otsailaren 8 eta 9an Madrilgo Xanadu pistan.

Honetan Gipuzkoako taldeak lehiaketa ona egin zuen eta garaipen artean, Enara Fernandez lasarteoriatarak eta bere gidak, Iraitz Etxarrik infantil mailan lortutakoa izan zen. Elkar ongi ezagutzen dutela erakutsi zuten, jaitziera desberdinetan denbora ederrak eginez.

Asteburu honetan, beste hitzordu garrantzitsua dute Astunen, Euskadiko txapelketa. Honetan lehen postua eskuratuz gero, Andorran egingo den Espainiako txapelketarako txartela eskuratu dute Enara eta Iraitzek.



## LOKEko gimnastak ederki lehen txapelketa

LOKEko gimnasta taldeak larunbatean hasi zuen txapelketa denboraldia. Bergarako Labegarieta kiroldegian eskolarteko A eta B maila eta amateur mailako txapelketa izan zen eta oso pozik agertu dira lortutako emaitzekin.

Honetan Aizpea Arroyo seniorrak lehen postua lortu zuen uztaiarekin egindako lanean.

Ainara Apezteguia jubenilak, berriz, bederatzigarren postuan amaitu zuen lehiaketa. "Ainara ez dago momentu onean, azken asteetan gaixo izan da eta bizkarrean ere min dauka"

Kadete B mailako taldeak sokekin erakustaldi polita egin eta hirugarren postua eskuratu zuen. Jubenil A taldeak borrekin lan egin osten, zazpigarren postuan amaitu zuen.

Beste jardunaldi bat lehiatu behar dute LOKEko gimnastak finalerako sailkapena ziurtatzeko. Lehen saio honetako postuak mantenduz gero, guztiek txartela eskurako lukete.



## ATLETISMOA.

## Uzta ona Gipuzkoako txapelketa

Rodriguezek 400 m. lasterketako Euskadiko marka hautsi zuen

**Gipuzkoako bi txapel-dun berri, Euskadiko markak berria, zilarrrezko domina bat eta bi brontzezko postu lortu zituzten LOKEko gazteek Gipuzkoako txapelketa.**

## TXINTXARRI

Asteburuan Gipuzkoako absolutu mailako txapelketa jokatu zen Donostian. LOKEko atletek emaitza oso onak lortu zituzten: bi urrezko domina, zilarrrezko bat eta bi brontzezko. Guztien artean aipatzekoa da Itoitz Rodriguez gazteak 400 m. lasterketan lortutako garaipena.

Itoitz 400 m. lasterketako irabazlea izan zen 49.12 denborarekin. Marka honi esker, Euskadiko jubenil mailako errekorra hautsi zuen, baita duela hamabost egun egindako Gipuzkoako jubenil eta junior mailako marka ere.



Itoitz Rodriguez 400 m. lasterketan garaile izan zen marka ederrarekin. INIGO BUSTO

Oskar Goikoetxea entrenatzaileak azaldu digunez, marka oso garrantzitsua da, izan ere, "Espainiako historiako 7. marka hobereena da"

Eneritz Bustok altuera proban lehenengo postua eskuratu zuen; Jon Altuna bigarren izan zen 800 m. lasterketan; Yeray Veronizek 60 m. lasterketan bere marka hobetu eta hirugarren postua eskuratu eta Ane Galardik ere jauzi hirukoitzean brontzezko domina lortu zuen.

Aste honetan Euskadiko txapelketa izango dira guztiak eta markak hobetzen

jarritzea espero dute. Helburua Espainiako junior eta jubenil txapelketetarako prest egotea dela onartu digu entrenatzaileak.

## Espainiako txapelketa

Bestalde, Gaizka Ormazabal gazteak Espainiako Promesa txapelketa parte hartu zuen. 200 metro lasterketan eta 60 m. hesi-lasterketan Antequeran. Lan ona egin zuen Lasarte-Oriako gazteak, baina "kalearekin ez zuen zortirik izan eta ezin izan zituen marka hobetu" aipatu digu LOKEko entrenatzaileak.

## KIROL AGENDA.

## FUTBOLA

Larunbata 15  
Michelin, 10:00etan  
Ostadar-Oiartzun I. kadetea, kopa  
Martutene, Donostia, 11:00etan  
Martutene-Ostadar B  
I. kadetea, kopa  
Michelin, 12:00etan  
Ostadar-Euskalduna  
Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila  
Urnieta, 12:00etan  
Urnieta-Ostadar  
Infantil Txikia, partaidetza  
Michelin, 13:45ean  
Ostadar-Sto. Tomas Lizeoa  
I. infanila, kopa  
Michelin, 15:30etan  
Ostadar-Añorga  
Jubenilen Ohorezko maila  
Michelin, 17:15ean  
Texas Lasarteerra-Euskalduna  
I. Erregionala, kopa

Azkoagain, Oñati, 16:30ean  
Aloña Mendi-Ostadar  
Erregional Ohorezko maila

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 14  
HERRIKO TXAPELKETA  
19:45ean, El Punto-Balardi  
20:45ean, Indaux-Ilargi  
Larunbata 15  
HERRIKO TXAPELKETA  
09:15ean, Urdaneta H.K.-Izarra  
10:15ean, Txindoki-Arkupe  
11:15ean, Izkiña-Trumoi  
12:15ean, Buenetxea-Viña del Mar

Kiroldegia, 15:30ean  
ISU Leihok-Baobab Gipuzkoako Liga  
Lamuza Granja kiroldegia, Laudio, 18:30ean  
Uxo-Aldaz H.K. Nazional III. maila

## SASKIBALOA

Larunbata 15  
Labegarieta kiroldegia, 16:30ean  
Soraluece Bergara-Ostadar SKT  
Nesken kadete maila, errendimendua  
Kiroldegia, 18:00etan  
Ostadar SKT-AYMA Goierri  
Nesken junior maila, partaidetza



## PILOTA

Larunbata 15  
Kirol guneko pilotalekua, 16:00etan  
Intza-Gure Txeru  
Eskuz binaka, II. kadetea. Udaberri txapelketa.  
Kirol guneko pilotalekua, 16:00etan  
Intza-Tartaloetxe  
Eskuz binaka, I. seniorra. Udaberri txapelketa.

## ATLETISMOA

Larunbata 15  
Anoetako belodromoa, 16:30ean  
LOKEko atleten senior mailako Euskadiko txapelketa parte hartuko dute.

Igandea 16  
Anoetako belodromoa, 10:30ean  
LOKEko atleten senior mailako Euskadiko txapelketa parte hartuko dute.

Antzuola, 10:30ean  
Herriko hainbat atletek II. Antzuolako 8 Miliak proban parte hartuko dute.  
Zaramillo, Bizkaia, 10:30ean  
Herriko hainbat atleta 7. Apuko goigera mendi proban izango dira lehiak.

## IGERIKETA

Larunbata 15  
Iruña, 10:00etan eta 17:00etan  
Buruntzaldea IKT-ko junior;

promesa eta absolutu mailako igerilariak Euskal Herriko Neguko txapelketa lehiatuko dira.

Igandea 16  
Iruña, 10:00etan eta 17:00etan  
Buruntzaldea IKT-ko junior, promesa eta absolutu mailako igerilariak Euskal Herriko Neguko txapelketa lehiatuko dira.

## SKIA

Larunbata 15 eta igandea 16  
Astun  
Enara Fernandez eta Iraitz exarrikitsu eta ikusmen urria duten Euskadiko txapelketa parte hartuko dute.

## GIMNASTIKA

Igandea 16  
Oiartzun, 10:15ean  
LOKEko eskolarteko B mailako infantil taldeak txapelketako lehen jardunaldia du.

## JUDO

Larunbata 15  
Hernani, 09:30ean  
LOKEko judoket lehin mailako eskola kiroleko finalerako sailkapen saioa dute.

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 15  
Atsokabar parkea, 11:00etan  
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantil eta alebinek saioa dute.

Igandea 16  
Zaramillo, Bizkaia, 10:00etan  
Herriko hainbat txirrindulari 7. Apuko goigera BTT proban lehiatuko dira.

## ERRUGBIA

Larunbata 15  
Ordizia, 12:00etan  
Ordizia-Beltzak Ostadar Jalai B 14 urte azpikoak  
Anoetako miniestadioa, 15:00etan  
Bera Bera-Beltzak Ostadar Jalai A 14 urte azpikoak  
Anoetako miniestadioa, 16:00etan  
Bera Bera-Beltzak Ostadar Jalai 16 urte azpikoak

Igandea 16  
Xirimiri elkarte, 10:00etan  
Beltzak Ostadar eskolako maila guztiak hitzaldia eta bideo ikustaldia dute.

## BOLA-JOKOA

Igandea 16  
Ategorrieta, 10:00etan eta 16:30ean  
Ostadar SKT-ko bola joko taldeak Bikotekako txapelketako saioa du.

## Agenda

Larunbata 15, 20:00etan, San Pedro parrokian



### Bazkideen ohorez

SuBerri akordeoi orkestrak emanaldia eskainiko du bihar. Herritar guztiei irekia bada ere, urte honetan bere babesa eman dieten bazkideei eskerrak emateko kontzertua da. Honetan Elias Goikouriaren zuzendaritzapean estilo desberdinetako lanak eskainiko ditu akordeoi orkestrak

zabor bilketaren ikuspegi derberdinak aztertuko dituzte Jose Mari Puldain, Natxo Izeta eta Carlos Ormazabalek.

### Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 15, 18:00etan

Behibis taldeak "Bueltakea" haur antzerkia eskainiko du. Sarrerak internet bidez, 2,70 euro; leihatilan, 3 euro.

### Bakarrizketa

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 15, 00:00etan

Maribel Salas-ek umorezko bakarrizketa eskainiko du. Gaztelaniaz.

### Ikastaroa

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Otsailak 15 eta 19

Eneko Aranburu fisioterapeutak "Gorputzaren autogestioruntz, anatomia ikasketak" ikastaroa eskainiko du.

Otsaileko ostiraletan arratsaldez

Gitarrako ikastaroa eskainiko du Julen Basterrak.

### Magia ikuskizuna

ZULO ARETOA

Igandea 16, 18:00etatik aurrera

Haurrentzako txokolatada eta Rafala magoaren emanaldia.

### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Otsailean zehar

"El Estudio del pintor" akademiako ikasleen lanak ikusgai.

## Lasarte-Oria

### Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 14, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen denboraldi berriko saioa, "De tal padre tal hijo" filma ikusi ahal da. Sarrera, leihatilan, 4,70 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 16, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Futbolin" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 16, 19:30ean

Helduentzako zinea, atalean "De tal padre

tal hijo" komedia ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Asteazkena 19, 19:30ean

"La educación prohibida" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz.

### Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 14

Punkaz gozatzeko gaua Hendaiako "Fraktura" eta Donostiako "Malos Tiempos" taldeen eskutik.

Larunbata 15

Lasarte-Oriako Julen K eta Txoni dj-en saioa dantzatzeko aukera izango da.

### Gure esku dago

OKENDO PLAZA

Larunbata 15, 10:00etatik aurrera

"Gure esku dago" ekimenak jaialdi erraldoia antolatuko du herriko taldeekin batera.

### BAI Topaketa

VILLA MIRENTXUN

Larunbata 15, 10:00etan

BAI plataformako I. Topaketen barruan,

## Herritarren txokoa

### Biyak Bat elkartearen bidaia

Biyak Bat elkarteak Granada, Kordoba eta Sevillara bidaia antolatu du. Maiatzaren 26a eta ekainaren 4a bitartean izango da txangoa.

Elkarteko kideek jakitera eman dutenez, Lasarte-Oriatik Zaragozara autobusez egingo da bidaia eta Zaragozatik Sevillara, berriz, AVE-an.

Izena ematea ireki da. Informazio gehiago eskuratu nahi duten herritarrek elkarteko bulegora hurbiltzea besterik ez dute, astelehenera ostiralerara, 10:30tik 12:30ra.

### Inauterietako taberna

Lasarte-Oriako Gazteria, Festak eta Kirolak departamentuak herriko irabazi asmorik gabeko elkarteak eta entitateei eskaintzen die aukera Inauteri hauetan Okendo plazan jarriko den karpinen barruko taberna kudeatzeko.

Tabernatik ateratako etekinak bere osotasunean talde edo elkarteentzat izango dira.

Interesa duten talde guztiek, otsailaren 15a baino lehen Udaletxeko erregistroan haien eskaria egin beharko dute.

### Megaba elkarteak kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrek animatzen dituzte honetan parte hartzerako.

Horretarako [www.megaba.es](http://www.megaba.es) weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

### Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenera, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atak zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko [uztarolasarteoria@hotmail.com](mailto:uztarolasarteoria@hotmail.com) helbidean.

## Hemeroteka


### Duela 1098 ale

Bihar 28 urte izango dira Lasarte-Oriako Udalaren batzar gestorea eratu zenetik. Horregatik gure herriaren historiaren zatitxo bat ekarri nahi dugu hona, 1996. urtean hamargarren urteurreneko zenbaki berezia egin bazuen TXINTXARRI aldizkariak.

Honetan, besteak beste, 1986ko otsailaren 15eko berriak, orduan alkate zen Ana Urchueguiari elkarrizketa, hamar urte horietako kronograma eta herriko arlo desberdinetako errepasoa eta Udaleko alderdiek eta herritarrek bilakaerari buruz zuten iritzia ere aurkezten zen. Baita gure herriaren historia eta sorkuntzako hainbat pasarte ere.

Eta adierazgarria da, Lasarte-Oria herria sortze prozesuaren erreportajea. 1975ean Udalaren aldeko Batzorde Eragilea osatu zen, honek atilukuan aipatzen denez, Lasarte-Oriako lurraldeen mugak eta biztanle-kopurua zehaztu zituen.

Baina erreportajearen adierazten denez, 1979ko hauteskundearen ostean eman zitzaion bultzada handiena, "Lasarte-Oriako hautagaiak Hernaniko eta Urnietako udalerrietako zerrendetan aurkeztu ziren [...] hautatutako Lasarte-Oriako zinegotzietatik udalerrira lortzea hartu zuten erronka nagusiz eta bat egin zuten Udalerriren Aldeko Batzordeak egindako proposamenarekin". Legalki ez bazen ere behin behineko Udala ere eratu eta lanean hasi ziren. Udal desberdinekin hainbat eztabaida izan ostean, 1985eko martxoaren 3an erreferenduma egin zen eta baietzkoa izan zen nagusi. Azaroan Lasarte-Oriaren desanexioa onartu zuten Andoain, Hernani eta Urnietako udalek eta 1986ko urtarilean Foru Aldundiak onetsi zuen eta aipatu legez, otsailaren 15ean lehen Udalbatza osatu zen.



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858  
[txintxarri@txintxarri.info](http://txintxarri@txintxarri.info)

# Mikel Laboaren unibertsoa oholtzan

"Zazpi aldiz elur" antzezlan eskainiko du Tanttaka teatroak otsailaren 21ean, 20:00etan

**Hitzak, musika, poesia... hainbat elementu nahastu ditu Tanttaka teatroak bere ikuskizun berrian, "Zazpi aldiz elur". Helburua, ikusleak Mikel Laboa abeslariaren unibertsoan murgiltzea da. Gasteizen estreinatu zuten asteazkenean eta Donostian erakutsi ostean Laboaren unibertsoa, otsailaren 21ean, ostiralean izango da Lasarte-Orian.**

## TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Kultura sailak antzerkia eta dantza bultzatzeko hainbat ekintza burutzen ditu urtean zehar. Azken asteetan herriko elkarrekin batera gauzaturiko ikuskizun amateurrak izan dira nagusi, baina urtean zehar saio profesionalen tartea ere bada. Horregatik, otsailaren 21ean, ostirala gaueko 20:00etan, Tanttaka teatroak "Zazpi aldiz elur (Mikel Laboa Elurretan)" obra eskainiko du Manuel Lekuonan.

Kultura saileko arduradunek adierazi digutenez, helduei zuzenduriko saio hau, urtean zehar aurreikusten diren 7 ikuskizun profesionalen artean lehenengoa da. 2014. urtean, 2 antzerki saio, 3 dantza emanaldi eta kale-antzerkiak izango dira.

## Atxagaren hitzak

"Zazpi aldiz elur" lagun arteko bilgune baten antzeko zerbait da; denok daukagu, gure gogoan neguko gau elurri batean bizi izandako pasadizoren bat seguruenik; leihotatik sartzen den argi-zuriaren reflejoak adierazten digu elurrez inguratutik gaudela..." horrela dio emanaldi honen sinopsiak.

Bernardo Atxagak 2009ko urrian, Laboa zendu ostean, Erlea aldizkarian idatzitako Zazpi urtez elur testuan du oinarri eta musika, poesia, antzezpena, bideoa... nahasten dituen emanaldia da.

Honen bitartez, Tanttaka eta Bernardo Atxagak Mikel Laboa eta bere lanari goratzarxe xumea egiten diote.

## Lagunen ikuspegia

Tanttaka-ko zuzendariak Mireia Gabilondok Iñaki Salvador musikaria, Angel Unzu gitarra-jolea, Maria Berasarte abeslaria eta Iñaki Rikarte aktoreak batu eta bost hilabetez, Mikel Laboa pertsonaren eta haren obraren inguruko sorkuntza lana osatu zuten.

Atxagaren testuko pasarteak eta lagun arteko esperientziak dira boskote honek taula gainean aurkeztuko dituenak. Izan ere, taula gainean egongo diren pertsonetako batzuk ongi ezagutzen zuten Laboa. Gabilondok oso harreman estua zuten abeslariarekin; Iñaki Sal-

vador hainbat urteetan ohol-tzaz oholtza ibili zen Laboarekin eta Angel Unzuk Donostiako hondartzan eman zuten azken kontzertuan harekin jo zuten.

## Bere munduan murgildu

Lanaren sinopsian azaltzen den modura, "kontakutako direnak Mikelen nahiak, Mikelen bizipozak, Mikelen gauza intimoak, pertsonalak eta ezezagunak izango dira". Era honetara, Mikel Laboaren psikiatra lana, txoriak, ausardia, heriotza, haren hitz egiteko modua, bere bizitzako anekdotak... hainbat gai jorratuz abeslariaren unibertsoan murgiltzen dituzte ikusleak.

"Eta nola ez... Ausardiaz, berak egiten zuen bezala, esperimentatu, jolastu, hitzegin, ixildu... aske sentitu eta aske sentiarazi". Horregatik, abeslariak sortutako poema, kantu eta testuak abestu, antzetz, birmoldatu, nahastu edo estiloz aldatzen dituzte lanean.

Eta haien paperak ere aldatzen dituzte taula gainean dauden pertsonaiek, esate baterako, Mireia Gabilondo eta Iñaki Rikarte abesten edo instrumentuak jotzen ikusteko aukera izango da, baita Maria Berasarte antzetzten ere.

## Lehen emanaldiak

"Zazpi aldiz elur" lana berberok labeetik atera berria iritsiko da Lasarte-Oriara.

Aurreko asteetan Tanttakako lagunak azken ukituak eman diziotelari Urrietako Sarobe antzokian eta aurre emanaldi bat ere egin zuten otsailaren 9an.

Estreinaldia, berriz, Gasteizen izan zen asteazkenean. Donostian asteburu honetan ikusi ahal da Antzoki Zaharrean eta hurrengo ostiralean, Manuel Lekuonan izango da.

Laboaren hitzak eta musika nahasten dituen emanaldia ikusteko aukera izango da, beraz, otsailaren 21ean, ostiralean, 20:00etan.

## Sarrerren zozketa

Ikuskizuneko sarrerren aurre-salmenta ireki da dagoeneko [www.lasarteoriasarean.eu](http://www.lasarteoriasarean.eu) webgunearen "Sarrerak" atalean. Astelehenean aurrera, berriz, Manuel Lekuonako



"Zazpi aldiz elur" lanean parte hartzen duen boskotea, I. Rikarte, A. Unzu eta M. Berasarte zutik eta eserita, M. Gabilondo eta I. Salvador.

harreraren izango dira eskuragarri. Internet bidez, sarreraren prezioa 5,40 eurokoa da; leihatilan, berriz, 6,60 euro.

Baina bada sarrerak eskuratzeko beste era bat ere,

TXINTXARRI aldizkariko zozketa.

Bi sarrera bikoitz zozketatuko ditugu galdera honi erantzuten dioten herritarren artean: Laboaren heriotza

zela eta, zein omenaldi egin ziren Lasarte-Orian?

Erantzunak WhatsApp bidez 688 683 510 zenbakian, Twitter @txintxarri edota Facebookeko orrian jasoko ditugu.

**ZAZPI ALDIZ ELUR**  
(mikel laboa elurretan)

**TANTTAKA teatroa**

Testua: Bernardo Atxaga; Zuzendaritza: Mireia Gabilondo  
Interpreteak: Maria Berasarte, Mireia Gabilondo, Iñaki Rikarte, Iñaki Salvador eta Angel Unzu

ELIZKO JAIERAKO GOBIERNO VASCO  
Gasteizko Erre-Arteakko Elkartea Foral de Gasteiz  
Elkartea Foral de Gasteizko Elkartea Foral de Gasteiz  
Mikel Laboa Katedra  
SAR BE  
ESKENA  
Banaketa JulioPerugorria